



# Osasuna Politika Guztietan

## BATZORDE TEKNIKOA



Txosten  
sektoriala **2020**

**Emakunde**

2022ko otsailaren 7an



*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Emakunderen jarduera guztia emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzea bideratuta dago. Ildo horretan, osasunaren mugatzaile garrantzitsuenetako bat azpimarratzen da, generoa, baina epe ertain-luzeko zeharkako neurriak dira, biztanleengan berehalako eraginik ez dutenak. Politika sektorialak gauzatzen dituztenak dira biztanlerian eragin zuzena dutenak.

4/2005 Legeak eta Berdintasunerako VII. Planak ezartzen dute gobernuko departamendu guztiak behartuta daudela euren politikek gizon-emakumeengan eragin dezaketen inpaktu diferentziala kontuan hartuta eta berdintasun helburuekin planifikatzera. Horregatik, departamendu guztiei dagokie sektore-esparru bakoitzean gizon-emakumeen arteko desberdintasuna ezabatzea eta, hortaz, pertsonen osasunean desberdintasunak ezartzen dituen determinatzaile garrantzitsu hori ezabatzen laguntzea.

Hainbat koordinazio-neurri ezartzen dira departamendu eta bestelako erakundeekin, politikak genero ikuspegitik egin daitezen: osasuna, enplegua, gizarte politikak, etxebizitza.... Eta desberdintasunak antzematen eta horiek ezabatzeko neurriak ezartzen laguntzen dute.

Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearentzat, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko koordinazioa da funtsezko lan-arlo bat, eta, horregatik, horri buruzkoak dira txosten honek jasotako jarduera gehienak.

## Jarraian, Emakundek 2020an osasunaren arloan egindako jarduerak zerrendatu ditugu:

**Osalanekin lankidetzan aritzea**, hitzarmen baten bidez, genero-ikuspegia laneko osasunean txertatzeko jardueren bidez. Talde teknikoa bi aldiz bildu da urteko jarduerak planifikatzeko, aholkularitza emateko eta **Lan Ikuskaritzarekin** urtero egiten dugun jardunaldi bateratua antolatzeke, besteak beste. Aurten, 2021eko lehen hiruhilekora atzeratzea erabaki da, aurrez aurre egin ahal izateko.

---

2020an, bigarren aldiz eguneratu da [Laneko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloa](#). Eredu hori Emakundek jartzen du enpresen eta beste erakunde batzuen eskura, erakunde bakoitzera egokitzeko orientabideak eta erraztasunak emateko.

Halaber, protokoloa eguneratua zabaltzeko eta prestatzeko lan egin da, hurrengo lan-saioetan zehazten dena. Alde batetik, [Berrikuntzak soldata berdintasuna eta laneko-jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpenaren arloetan](#) jardunaldia antolatu da, azaroaren 20an, online formatuan. Bertan, **Laneko sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzioa** hitzaldia eman da. Emakundek egindako sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloaren zeregina. Hitzaldi hori Olga Fotinopulos Basurkok eman du.

- Jardunaldiaren ordu-kopurua: 3 h 45 min.
- Parte hartu duten gizon-emakumeak: 191 emakume eta 24 gizon.

Bestalde, protokoloaren aplikazio praktikoari buruzko prestakuntza-saio bat egin da enpresentzat eta beste erakunde pribatu eta publiko batzuentzat. Olga Fotinopulos andreak eman zuen saio hori, abenduaren 9an, formatu mistoan (aurrez aurrekoa eta online), “Laneko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioari buruzko prestakuntza. [Berrikuntzak eta aplikazio praktikoa](#).”

- Jardunaldiaren ordu-kopurua: 3 h 30 min.
- Parte hartu duten gizon-emakumeak: 182 emakume eta 24 gizon.

**Emakumeen Osasunaren Nazioarteko Eguna, “[COVID-19a eta emakumeen osasunean duen eragina: ikaskuntzak eta proposamenak](#)”** izenburupean; osasunari buruzko urteko jardunaldia egin da genero-ikuspegitik, Emakunde Birtuala ekimenaren barruan. Amaia Bacigalupek, María del Mar Calventek eta Marga Saenzek hartu dute parte, maiatzaren 28an.

- Jardunaldiaren ordu-kopurua: 2 h.
- Bisualizazio-kopurua 2020ko uztailaren 16an: 320.

2020an **sexu jazarpenaren eta sexuagatiko protokoloen aplikazioari buruzko 47 aholkularitza egin dira enpresa eta erakunde pribatuentzat.**

Berdintasunerako, errespeturako eta indarkeriarik ezarako **Nahiko! Hezkidetza-programa** borondatez garatzen jarraitu dute Euskal Autonomia Erkidegoko 49 ikastetxek.

- 
- Parte hartu duten ikastetxeen kopurua: 2015/2017: 31; 2017/2019: 2017/2018 ikasturtean 34 ikastetxe izan ziren eta 2018/2019 ikasturtean, 43; 2019/2021: 49.
  - Nahasitako ikasleak: 2015/2017: 2.579; 2017/2019: 2017/2018 ikasturtean 4.572 izan ziren eta 2018/2019 ikasturtean, 6.239; 2019/2021: 5.953. 2.876 neska eta 3.077 mutil.
  - Nahasitako irakasleak: 2015/2017: 154; 2017/2019: 2017/2018 ikasturtean 259 izan ziren eta 2018/2019 ikasturtean, 347; 2019/2021: 364.

**Emakumeen aurkako indarkeria osasun publikoko arazo oso larria da**, eta biktimei ematen zaien arreta prebenitzeko eta hobetzeko hainbat neurri eskatzen ditu. Horretarako, erakundeen arteko koordinazioa, profesionalen prestakuntza, lan-tresnak eta abar hobetu behar dira.

**PREBENTZIOARI** begira, gazteei zuzendutako Beldur Barik programa garatu da **2020an**. Gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko **BELDUR BARIK kanpaina** bultzatu eta kudeatu da, horretarako foru aldundi bakoitzarekin lankidetzan hitzarmen bat sinatuta. Beldur Barik lehiaketaren 2020ko edizioan 51 udalerrik, koadrilek eta mankomunitatek parte hartu dute, eta 242 lan aurkeztu dira. Horietatik 204 onartu dira lehiaketara, eta guztira 1.469 gaztek parte hartu dute. Aurten, COVID-19aren aurkako segurtasun-neurriak kontuan hartuta, ez da Topaketarik egin, eta, horren orde, saria-banketa online egin zen, streaming bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza, eta 100 pertsona inguruk jarraitu zuten. Beldur Barik Uda kanpaina espezifiko egin zen, udako festetan eta aisialdian eraso sexistak prebenitzeko. Kanpaina horren bidez, eraso sexisten aurkako kartelak eta gida eguneratua bidali zitzaizkien toki-erakunde guztiei, beren udalerrietan zabal zitzaten. Horretaz guztiaz gain, Beldur Barik programaren 2010-19ko Eraginaren Ebaluazioa hasi du, Emakundek 2020an, 2021eko ekainera arte garatuko dena, urteetan parte hartu duten gazteen ahotsa jasotzeko eta etorkizunerako hobekuntzak eta ildo estrategikoak gazteen ikuspegitik identifikatzeko.

Bestalde, Euskal Hezkuntza Sistemaren II. Hezkidetzaren Planaren esparruan, 2014-2017 ikasturtean ikastetxeetan izandako Beldur Barik esperientzia pilotutik ateratako materiala bigarren hezkuntzako irakasleentzako eta ikasleentzako fitxa estandarren formatura egokitu du Emakundek 2020an, Hezkuntza Sailaren jarraibideak betez, 2021ean sailaren webgunean eskuragarri egon daitezen.

---

**Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko sentsibilizazioa, prebentzioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako diru-laguntzak** kudeatu dira, horien laguntza funtsezkoa baita gizartean esku hartzeko. Ildo horretan, emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruzko sentsibilizazio- eta/edo prebentzio-ekintzak abian jartzen dituzten erakundeek jarduerak diruz laguntzen jarraitu du Emakundek 2020an, bai eta indarkeria hori prebenitzeko oinarri gisa berdintasunezko jarrerak sortzera bideratutako estrategiak ere. 240.000 euro bideratu dira deialdi horretarako. 79 eskaera aurkeztu ziren; horietatik 43 diruz lagundutako proiektuak izan dira, eta 16k, puntuazio nahikoa lortu duten arren, ez zuten diru-laguntzarik jaso kreditua agortu zelako. Beste 20 proiektuk ez zuten gutxieneko puntuazioa lortu.

**BIKTIMEI ARRETA EGOKIA EMATEKO erakundeek arteko koordinazioa** hobetzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Emakundek helburu hori lortzeko bultzatzen dituen batzorde eta lantaldeetan parte hartzen du. Nabarmentzekoa da:

**Etxean tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeek arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea.**

Alarma-egoera ezarri ondoren, II. Akordioaren Jarraipen Batzordea aktibatu zen martxoaren 16an. Alarma-egoera deklaratu zenetik, Emakundek etengabeko harremana izan zuen, bai maila politikoan, bai teknikoan, emakumeen aurkako indarkeria artatzeko arloan eskumen zuzena duten II. Akordioaren Batzordeko erakunde guztiekin: Eusko Jaurlaritzako sailekin, aldundiekin eta udalekin. Hori guztia, zerbitzuen eta baliabideen funtzionamendua bermatzeko eta horiek COVID-19aren pandemiak sortutako egoerara egokitzeko.

2020ko apirilaren 16an, Emakundek batzorde hori aktibatu zuen Lehendakariaren bulegoetatik formatu mistoan, aurrez aurre eta on-line, egindako osoko bilkuran. Helburu nagusia izan zen pandemiaren testuinguruan emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko erakundeek arteko koordinazioan aurrera egiten jarraitzea.

**Ikuspegi intersektzional**etik egin da lan hori, eta Edekarekin lankidetzan aritzea ekarri du horrek, desgaitasuna duten pertsonentzat eskuragarri dauden tresnak egiteko. Zehazki, COVID-19aren pandemia-egoerari buruzko informazio-kartelari dagokionez, bi bideo egin dira entzumen-degaitasuna duten emakumeei

---

zuzenduta, euskaraz eta gaztelaniaz; Irakurketa Errazeko kartela, adimen-  
edo garapen-desgaitasuna duten emakumeentzat, eta QR kodea ikusmen-  
desgaitasuna duten pertsonentzat.

**ETT Erakundearteko Talde Teknikoa.** Aipatutako II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen esparruan, **ETT Erakundearteko Talde Teknikoaren** lana bultzatu eta dinamizatu da. Lantalde horrek lan-bilera bat egin zuen 2020an, otsailaren 26an, eta, bertan, “Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzeko lege-aurreproiektuaren” azken zirriborroa aurkeztu zion taldeari. Ildo horretan, egindako izapideak azaldu ziren, aldaketa egiteko hasierako planteamenduak, lege-aurreproiektuak izan dituen iturriak, partaidetza-prozesua, landutako zirriborroak eta erakundeekiko eta herritarrekiko kontrastetik eratorritako lege-proiektuaren aldaketak eta hobekuntzak adieraziz, besteak beste. Bestalde, gai-zerrendako beste puntu batean, ETT taldeak bileraren aurretik eta bilera egin bitartean “genero-indarkeriaren biktimentzako prozesu penalari buruzko informazio-gida”ri buruz egindako ekarpenak jasotzen dira. Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Batzorde Judizialeko lantaldeak egindako dokumentua da, eta Emakundek eta Osasun Sailak parte hartu dute.

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiarekin izandako lankidetzaren ondorioz, **bi material informatibo**, “Genero-indarkeriaren biktimen eskubide nagusiak prozesu penalean” izeneko **liburuxka** eta “Genero-indarkeriaren biktimentzako prozesu penalari buruzko informazio-gida” prestatu dira. Emakundek bere gain hartu du liburuxkaren eta gidaren bertsioen argitaratzea. Bi dokumentuen helburua da biktimei prozesu judizialean dituzten eskubide nagusiak azaltzea, hizkera eta formatu grafiko eskuragarrian, bai eta epaitegian edo auzitegian prozedura zer fasetan garatzen den azaltzea ere. Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan –euskaraz eta gaztelaniaz–, eta biktimentzat ohikoak diren hizkuntza ez-ofizialetan –arabieraz, frantsesez, ingelesez, italieraz eta errumanieraz– egin dira, baita adimen- edo garapen-urritasuna duten pertsonentzako irakurketa errazean ere. Argitalpen horien aurkezpena Donostian egin zen, 2020ko abenduaren 2an, Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariaren presentziarekin eta hitzaldiarekin.

**Informazio Sistemen Taldea:** COVID-19ak 2020an sortutako salbuespenezko egoerak indarkeria matxistaren biktima diren emakume eta adingabeekin gertatzen ari zenari buruzko datu eguneratuak lortzeko beharra ekarri du. Ezohiko datu-bilketa hori sistematizatzeko, ezohiko bi bilera egin dira Informazio Sistemen Taldearen esparruan: 2020ko maiatzaren 28an Eusko Jaurlaritzako sailekin, eta 2020ko ekainaren 1ean foru aldundiekin eta Eudelekin.

---

Gainera, indarkeriaren biktima diren emakume eta adingabeentzako arretari buruzko datuak biltzeko aplikazioa berriz diseinatzeari ekin zaio, erakunde bakoitzera egokitzeko eta atseginagoa, erabilgarriagoa eta intuitiboagoa izan dadin. Aplikazioaren galdetegia berrikusteari eta egiten ari diren hobekuntzak egiaztatzeari begira, 2020an Informazio Sistemen Taldearen bi bilera egin dira, urriaren 28an eta abenduaren 15ean. Elkarlan horrek jarraipena izango du 2021ean.

Halaber, Informazio Sistemen Taldearen 2020ko urriaren 28ko saioan, 2019ari buruz bildutako datuen berri emanda. "Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak eta analisia. EAE, 2019" txostena aurkeztu da, funtsean Segurtasun Sailak emandako datuei buruzkoa. Halaber, biktima diren emakumeei eta adingabeei emandako arretari buruzko datuen bilketaren analisi-txostena aurkeztu da: "Emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko erantzuna. EAE, 2019". Txosten horiek Emakunderen webgunean daude eskuragarri, jendeak kontsulta ditzan. Datuak biltzeko eta aztertzeko lanaren barruan, hainbat aurkezpen-laburpen espezifiko egin dira: "Eusko Jaurlaritzaren erantzuna emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean. EAE, 2019", "Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean foru aldundiek emandako erantzuna. EAE, 2019" eta "Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean emandako erantzuna. EAE, 2019".

### **Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Sailarteko Talde Teknikoa.**

Talde horrek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana Estatu Itunarekin, Istanbulgo Hitzarmenarekin eta Euskadi Basque Country Agendarekin lerrokatzeko lan bat egin zuen 2019an, eta, horren ondorioz, egoerari buruzko txosten bat egin zen, 4 tresna juridiko horien ezarpen-mailaren jarraipena egiteko dokumentu operatibo bat jasotzen duena. 2020an, taldeak modu telematikoan jarraitu du lanean pandemia dela eta, eta sei hilean behin (2020ko ekaina) eta urtean behin (2020ko abendua) eguneratu du aipatutako tresna juridikoak batera ezartzeko dokumentu operatiboa.

**Profesionalen prestakuntzari** dagokionez, **JABETUZ** programaren hiru edizio egin dira. **Online prestakuntza-programa da JABETUZ, eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalei zuzenduta dago** 2020an. Alde batetik, **Jabetuz oinarritzakoaren bi ikastaro** eskaini dira: 11. edizioa otsailaren 17an hasi zen eta 12. edizioa irailaren 14an. 185 pertsonak parte hartu dute; 30 gizonak eta 155 emakumek, biktima horiek artatzen dituzten erakundeen arteko esku-hartze eremu guztietakoak, hala nola sistema judiziala,



---

soziala, hezkuntzakoa, osasunekoa eta segurtasunekoa. **Jabetuz ikastaro aurreratuari** dagokionez, 2020an jabetuz ikastaro aurreratuaren bosgarren edizioa egin da. Apirilaren 20an hasi zen, eta 98 pertsonak hartu dute parte, 85 emakumek eta 13 gizonek. Halaber, Jabetuz programaren esparruan, Emakundek eskaera bat egin zien ikastaroko irakasleei, COVID-19ari eta indarkeria matxistaren biktimen egoerari buruzko hausnarketa egin zezaten. Gogoeta horren amaieran, lan dokumentatu bat egin zen, Jabetuz programan azaltzen dena eta ikasleek beren lana hausnartzeko eta laguntzeko balio duena.

**Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko Deustuko Unibertsitatearen Unibertsitate Master Ofizialaren** garapenean ere parte hartu da 2020-2021 ikasturtean. Horretarako, 14 beka eman zaizkie ikasleei, esku-hartze profesionaleko eremu guztietan. Gainera, Emakunderen Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko arloak parte hartu zuen, eta 4 orduko prestakuntza-saio bat eman zien ikasleei, 2020ko urriaren 15ean.

**Emakumeen mutilazio genitalari (EMG)** dagokionez, lan-prozesu bat hasi zen 2013. urtean, emakumeen aurkako indarkeria-mota gisa emakumeen genitalen mutilazioa osorik aztertzeko eta lantzeko. 2020an, EMGren arloan Emakundek Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailekin duen lankidetzaren esparruan hartutako konpromisoen jarraipena egiten jarraitu da. Gainera, seigarren urtez jarraian, EMGren aurkako informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak “areagotzeko” eskaera egin zuen Emakundek, Nazioarteko Egunaren inguruan.

**Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatoen salerosketari** dagokionez, diru-laguntza izenduna izapidetu eta kudeatu zaio Askabide erakundeari, sexu-esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktima diren emakumei eta haien seme-alabei arreta integrala emateko baliabidea kudeatzeko eta biktima horiei arreta anbulatorioa emateko. Gainera, Oblaten Kongregazioa erakundearentzako diru-laguntza nominatiboa izapidetu eta kudeatu da, “Ireki leihoak” proiektua garatzeko. Proiektuaren helburua prostituzioaren errealitatea sistematikoki behatzea da, sexu-esplotaziora bideratutako gizakien salerosketaren biktima diren emakumeak detektatzeko, identifikatzeko eta haiei arreta emateko.

Abian jarri da sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeentzako eta haien seme-alabentzako egoitza-baliabide berria.

Sexu-esplotazioa helburu duen emakumeen eta neskatoen salerosketaren aurkako mahaia bultzatu da, Emakundek sustatu eta koordinatzen duena. Mahai



---

horren esparruan, lan-saio telematiko bat egin zen ekainaren 18an, Mahaiaren esparruan inplikaturako GKEekin. Bertan, salerosketa-kasuak detektatzeko adierazle komunak diseinatzeari ekin zitzaion. Ondoren, azaroaren 30ean, bigarren bilera bat egin zen aurrez aurre, GKE-ek adierazle komunak diseinuari buruz egindako lana bateratzeko. Segurtasun Indar eta Kidegoetako ordezkariak ere egon ziren bilera horretan, helburu horrekin egindako hainbat dokumentutan ekarpenak egin ondoren.

Gainera, Salerosketa Mahaiaren 2020ko ekintza-planaren barruan, online prestakuntza-jardunaldi bat antolatu zuen Emakundek abenduaren 16an, bi hizlarirekin. Lehena Alberto Daunis Rodríguez doktorea izan zen, Malagako Unibertsitateko irakaslea, eta El delito de Trata de Seres de Humanos: una aproximación desde la práctica forense (Gizakien salerosketaren delitua: Auzitegiko praktikatik egindako hurbilketa) hitzaldia aurkeztu zuen. Bigarrena Andrea Giménez-Salinas Framis andrea izan zen, Comillaseko Unibertsitate Pontifizioko irakaslea, eta Visibilización y mejora de la protección a las víctimas de trata: indicadores y factores de riesgo (Salerosketaren biktimen babesa ikusaraztea eta hobetzea: adierazleak eta arrisku-faktoreak) hitzaldia eskaini zuen.

**Gizonduz programaren esparruan, prestakuntza- eta sentsibilizazio-programarekin** jarraitu da, eta bereziki gizonei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egin dira, osasunari eta zaintzei buruzko edukiak biltzen dituztenak, generoak beren osasunean eta inguruan dituzten pertsonen osasunean duen eraginaz jabetu daitezzen. 2020an 1.820 pertsonak hartu dute parte prestakuntza-ekintzetan, bai aurrez aurrekoetan, bai online egindakoetan. Horietatik, 942 gizonak izan dira, eta 875 emakumeak. Gainerakoak ez binario gisa identifikatu dira edo ez dira identifikatu.

Halaber, **Gazteak Berdintasunean 2.0** proiektua garatu da, nerabe eta gazteen eta, bereziki, gizonen kontzientziazioa eta inplikazioa sustatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, teknologia berrietan oinarritutako hezkuntza-tresna berritzaileak erabiliz. 2020an, 6 ikastetxetan egin da prestakuntza: Bilboko La Salle Ikastetxean, Gasteizko Adsis Fundazioan, Bilboko Berri Otxoan, Kanpezuko Mendialdea IPIn, Muskiz BHIIn eta Lasarteko Oriarten. Ikasleekin egindako ikastaroetan, 399 pertsonak hartu dute parte: 185 emakumek, 211 gizonak eta ez-bitartzat jotzen diren 3 pertsonak. Guztira 70 prestakuntza-ordu eman dira ikasleekin, 21 taldetara iritsiz, eta horietako gehienek 4 orduko dedikazioa izan dute talde bakoitzeko.

---

## 2021 ERAKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK:

- Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloari buruzko prestakuntza praktikoa ematea enpresei eta beste erakunde interesdun batzuei.
- Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko online prestakuntza-modulu bat garatzea, enpresetako aholkularitza konfidentzialei zuzenduta.
- Gizonduz programa garatzen jarraitzea, gizonak berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka kontzientziazatzea, parte hartzea eta inplikatzeko. Horren helburuetako bat da zaintzaren etika eta praktika, autozaintza barne, gizonen eta haurren artean orokortzea. Testuinguru horretan, besteak beste, Sentsibilizazio eta Prestakuntza Programa eta Gazteak Berdintasunean 2.0 proiektua garatuko dira.
- Emakumeen mutilazio genitalaren (EMG) prebentzio-protokoloen jarraipena egitea. Etengabeko jarduera.
- Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatoen salerosketaren aurkako Euskadiko Mahaiaren esparruan, 2018-2019 aldian egindako diagnostiko-azterlanaren gomendioetatik eratorritako jarduketak hedatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko protokoloak eguneratzea, Erakundeen arteko II. Akordioa sinatu zenetik izan diren arau-programa- eta testuinguru-aldaketetara egokitzeke.
- Beldur Barik programan aurrera egitea.
- Jabetuz programaren edizio berriak abian jartzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta hobea emateko erakundeen arteko batzordeak eta lantaldeak sustatzea.
- Nahiko! Programak eskola-egutegiaren logikari jarraitzen dio; beraz, 2021ean amaituko da Nahiko!-ren 2019/2021 edizioa, eta 2021/2023 edizio berriari ekingo zaio.

## OSASUN PLANAREN INDARRALDIKO EKINTZA ESANGURATSUENAK ETA ESTRATEGIKOENAK, 2021 ERAKO AURREIKUSITAKOAK:

EKINTZA ESANGURATSUAK	DESKRIBAPEN LABURRA
<b>Nahiko! programaren 2015/2017, 2017/2019, 2019/2021 edizioak</b>	<p>Nahiko! programak berdintasunean oinarritutako bizikidetza lortu nahi du, balioetan oinarrituta, giza eskubideak eta genero-rolen analisi kritikoa oinarri hartuta, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko.</p> <p>Eraldaketa sustatzen du, eskola mistoaren eredutik hezkidetzako eskolaren eredura.</p> <p>Lehen hezkuntzako ikastetxeetan ezartzen da, non irakasleek programaren material didaktikoari buruzko ezagutza eskuratzen duten eta ikasleekin praktikan jartzen duten.</p>
<b>Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloa</b>	<p>Sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuetan esku hartzeko proposatutako protokolo-eredua eguneratu, zabaldu eta interesa duten enpresei eta beste erakunde batzuei prestakuntza ematea. Era berean, aholkularitza eskaini da enpresan ezartzeko moduari buruz, eta biktima izan daitezkeen kontsultei erantzun zaie, haien eskubideei eta jarduteko aukerei dagokienez.</p>
<b>JABETUZ, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalen zuzendutako online prestakuntza-programa</b>	<p>2015ean, online prestakuntzako lehen oinarritzko ikastaroa diseinatu eta jarri zuen abian Emakundek, "JABETUZ programa, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalen zuzendutakoa".</p> <p>Programaren helburua da emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei Euskal Autonomia Erkidegoko arreta-sistema osatzen duten profesionalen arreta bateratzea. Era berean, arreta horretan inplikaturako esparruetako erakundeetan dagoen prestakuntza-eskaerari erantzuten dio.</p> <p>Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da programak biktima horiei arreta ematen lan egiten duten profesionalen sare bat bultzatzen duela, batez ere ikasleen foroetan parte hartuz, eta erakundeen arteko koordinazioa errazten duela, biktima horiei ematen zaien arreta hobetzen laguntzeko.</p> <p><b>Oinarritzko Jabetuz ikastaroa:</b></p> <p>Online prestakuntzako oinarritzko ikastaroak 85 orduko iraupena du, eta helburu nagusia da etxean tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren printzipio orokorretako bat indartzea, hau da, emakumeak ahaldundutzea.</p> <p><b>Jabetuz ikastaro aurreratua:</b></p> <p>Oinarritzko ikastarotik harago, aipaturako Erakundearen arteko II. Akordioaren esparruan, hura osatzen duten erakundeek interesa agertu zuten giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen esparrutik, haurrak babesteko arau-esparrutik, eta berdintasun-politika publikoen esparrutik eratorritako betebeharretan aurrera egiteko. Zehazki, gai batzuetan gehiago sakontzeko beharra hauteman zen, hala nola "Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren seme-alabak" eta "Aniztasun funtzionala". Ildo horretan, Jabetuz on-line prestakuntza-ikastaro aurreratua diseinatu eta abiarazi zuen Emakundek 2016an, eta gaur egun zazpi unitate didaktiko ditu.</p>

EKINTZA ESANGURATSUAK	DESKRIBAPEN LABURRA
<b>Beldur Barik programa, gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko</b>	<p><b>Azaroaren 25eko kanpaina.</b> Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, 2006. urteaz geroztik kontzientziazio-kanpaina bat antolatzen da urtero Berdinsarearen esparruan.</p> <p><b>2013az geroztik,</b> Emakundek hartu zuen bere gain kanpaina hori sustatzeko eta kudeatzeko ardura, eta zuzenean sustatu du haren diseinua, garapena eta ebaluazioa, hiru foru aldundien eta Eudelen laguntzarekin eta Hezkuntza Sailaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren lankidetzarekin.</p> <p>Azaroaren 25eko kanpainaren esparruan garatzen da gazteei zuzendutako Beldur Barik programa. Programa horren helburu nagusia da gazteen artean emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, neskei tresnak eta baliabideak emanez indarkeria sexista ezagutu eta horri aurre egin ahal izateko, eta haiekin, mutil gazteekin, beren jokabide sexistak prebenitzea, eguneroko ingurunean eraso sexistak saihesteko zeregin aktiboa hartzera animatuz.</p> <p>Beldur Barik programaren barruan, gazteen inplikazio eta parte-hartze aktiboa helburu duten hainbat jarduera programatzen dira; horien artean, Beldur Barik lehiaketa eta azken Topaketa nabarmentzen dira, programa integral horren jarduera egituratzaile gisa.</p>
<b>EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOA. Euskadiko osasun-sisteman gomendatutako jardueren gida</b>	<p>2013an, emakumeen genitalen mutilazioa (EMG) emakumeen aurkako indarkeria-mota gisa aztertzeari eta modu integralean lantzeari buruzko lan-prozesu bati ekin zitzaion.</p> <p>2014an EAEn EMGren diagnostikoa egin ondoren, 2015ean EAEko administrazio publikoetako eta etorkinekin lan egiten duten GKE-etako langileei zuzendutako prestakuntza hasi zen. Horretarako, 2 lantalde jarri ziren martxan, eta haien helburua izan zen EMG osasun-arloan eta hezkuntza-arloan prebenitzeko gomendioak egitea. Talde horiek aldi berean lan egin zuten, alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko, Osakidetzako eta Emakundeko profesionalek osatutako osasun-taldean, eta, bestetik, Berritzegune Nagusiko, Hezkuntza Ikuskaritzako eta Emakundeko profesionalek osatutako hezkuntza-taldean.</p> <p>Horren ondorioz, osasun-sistamarako eta hezkuntza-sistemarako gomendatutako jarduera-gidak argitaratu ziren.</p>
<b>GIZONDUZ EKIMENA</b>	<p>Gizonduz ekimena Emakunderen programa bat da, eta gizonak berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka kontzientziatzea, gizonak parte-hartzea eta gizonak inplikatzeko du helburu. Bere helburuen artean zaintzaren etika eta praktika (autozaintza barne) gizonen eta haurren artean orokortzea dago, norberaren eta besteen garapenerako eta ongizaterako bide gisa, bai eta desberdintasunak eta indarkeria matxistak, eta nagusi den maskulinitate-ereduari lotuta, pertsonen eta inguruneari kalte egiten dieten arrisku-jokabideak prebenitzeko bide gisa ere.</p> <p>Testuinguru horretan, 2013tik 2020ra sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa eta Gazteak Berdintasunean 2.0 proiektua garatu dira urtero, besteak beste.</p>